

Jon Maia Soria
(1972 Urretxu, Gipuzkoa)

ITSASOARI BEGIRA

Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke
Neurria: Hamarreko handia (hg). Bost puntuko handia (ip)
Testuaren iturria: Badok, Berriaren Euskal Musikaren Ataria

Itsasoari begira, Euskal Herriari buruzko gogoetak. Kantua Benito Lertxundik plazaratu zuen "40 urtez ikasten egonak" CDan (2005 Elkar).

Sebastian Lizasoren bertsoari keinua
"Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira" esaldia Sebastian Lizasok kantatu zuen 1989ko Txapelketa Nagusiko finalean, kartzelako (edo egungo ganbarako) lanean. Halaxe zion gaiak: "Bizitza guztia itsasoan eman duzu: Gaur egun ohetik mugitu ezinez zaude. Leihotik sartzen zaizu itsasoaren olatu hotsa". Azken bertsoa eta bertsoaldia errematatzeko kantatu zuen Lizasok "Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira".

1 Zazpi mendeko gauean gaude
gure lore eta **sasi**
irrintzi, oihu, ele ta ulu
marmario ta **garrasi**
haize, enbata, brisa, galerna
gaur garbi, bihar **nahasi**
xake taularen zuri-beltzetan
arrats gozo, egun **gazi**
ai! Itsasorik ez bageneuka
zeri so* negarrez **hasi**?

2 Gure zuhaitza landatu dugu
amildegi **muturrean**
adarrak dauzka ertzetik haruntz
sustraiak, berriz, **lurrean**
bihotz-hesteak estu helduaz
esku baten **ahurrean**
bertso berriak jartzera noa
bere indar **laburrean**
nola malko bat isuritzen den
itsasoaren **aurrean**.

* ***so*** = *begira*

3 Nola haizea ur azalean
eguzkiaren **irteeran**
nola kaioak zorabioan
itsas enbata **bezperan**
pentsatzen nago gure berdin
ibiltzen ez ote **geran**
susmoa daukat gure patua
itsasoa ez **ote dan**:
libre ta zabal dugu aurrean
baina ezin dugu **edan**.

4 Heldu herria sustraietatik
tira eta gora **jaso**
jarri Kantauri aurrean eta
mantendu zutik hari **so**
ispilu hortan ikus gaitezen
herriz herri, auzoz **auzo**
zauriak gatzez itxi ditzagun
malkoak urez **eraso**
libre ta zabal irla txiki bat
salbatuko da **akaso**.

5 Azken arnasa eman nahi nuke
eguna hiltzen **ari da**
azken arnasa eman nahi nuke
bertsoak entzuten **dira**
azken arnasa eman nahi nuke
kantari nator **herrira**
azken arnasa ematen degu
eguzkitik **eguzkira**
azken arnasa eman nahi nuke
itsasoari **begira**.

